

# **BATALA MENDI LASTERKETA**

## **PARTE HARTZEKO ARAUTEGI OFIZIALA**

### **0.- ANTOLAKUNTZA:**

Batala Mendi Lasterketa elkarteak, CD0007692 kirol erregistroetako zenbakiarekin, Lazkaon egingo den Batala Mendi Lasterketaren antolakuntza hartzen du bere gain.

### **1.- DATA ETA LEKUA:**

1º. BATALA MENDI LASTERKETA 2026ko ekainaren 27an ospatuko da Lazkaon (Gipuzkoa). Lasterketa luzea goizeko 8:00etan hasiko da, eta eguerdiko 15:00etan bukatuko da. Helmuga Euskadi enparantzan izango da. Lasterketa motza , aldiz, 8:30ean hasiko da eta irteera zein helmuga ere Euskadi Enparantzan izango da. Bigarren lasterketa 11:30ean amaituko da. Azkenik, ibilaldia 9:00etan hasi eta 15:00etan bukatuko da, irteera zein helmuga ere Euskadi enparantzan izanik.

### **2.- IBILBIDEA:**

1º. edizio honetan bi lasterketa eta ibilaldi bat burutuko dira, bat (luzea) Aralarko Parke Naturaletik igaroko da zati handi batean; gainontzeko ibilbidea Lazkaotik eta Ataundik. Lasterketa luzeak 30km eta 1.351 metroko desnibel positiboa izango du eta lasterketa eta ibilaldi motzak, 12km eta 350 metroko desnibel positiboa. Puntuazioak Kronoak-en araudian egongo dira.

### **3.- PUNTUAGARRIA:**

Lasterketa luzea GOIERRI KOPA-n "TRAIL" modalitatean puntuagarria izango da eta lasterketa motza ,berriz, "SPRINT" modalitatean izango da.

### **4.- PARTE HARTZAILEAK:**

Lasterketa luzean 18 urte beteak(SENIOR) dituen mendizale, atleta edota kirolariek parte hartu ahal izango dute. Gehienez 200 parte hartzaile izango dira.

Lasterketa motzean , aldiz,16 urte beteta izan eta guraso edo tutoreen baimena idatziz erakutsi beharko da. Guztira 200 parte hartzaile izango dira.

Ibilbidean/Mendi martxan, berriz, 15 urtetik beherakoek, guraso edo tutore batekin parte hartuko dute. Horretan gehienezko parte hartzaile kopurua 200 lagun izango da.

OHARRA: a) Kontuan hartzeko adina, abenduaren 31ean edukitakoa izango da.

b) Bi lasterketak eta ibilbidea, INKLUSIBOAK izango dira.

### **5.- KATEGORIA:**

Bi lasterketetako kategoriak honakoak izango dira:

- Emakumezko absolutuak.
- Gizonezko absolutuak.

## 6.- IZEN EMATEAK

Izen ematea [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) atalean aurkituko duzuen loturatik egin behar da eta epea 2026ko martxoaren 12an zabalduko da goizeko 10:00etan, eta ekainaren 19an itxiko da. Ekainaren 1tik aurrera prezio aldaketak egongo dira. Modalitate bakoitza bost euro igoko da.

## 7.- PREZIOA:

Lasterketa luzean parte hartzea 30€ izango da, lasterketa motzean 20€ eta ibilaldian 15€ buruko,. Ordainketa egiteak proban parte hartzea suposatzen du eta horrek dituen zerbitzu guztiak (anoa guneak, osasun laguntza, lasterketa osteko poltsatxoa, etab.) disfrutatu ahal izatea. Prezioaren 1€ minbiziaren aurkako Gipuzkoako elkartearen alde joango da.

## 8.- SEINALEZTAPENA:

Bi lasterketak eta ibilaldia behar bezala seinaleztatuta egongo dira (boluntario eta ikusgarri diren balizaje zintekin).

## 9.- KONTROLAK:

Lasterketa luzean 5 kontrol puntu izango dira, motzean berriz kontrol puntu bakarra egongo da. Kontrol puntu hauetatik igarotzea derrigorrezkoa izango da, bakoitzaren kokapena mapa eta perfilean zehaztuta egongo delarik.

## 10.- ANOAGUNEAK:

12 Km-ko LASTERKETAN:

| KILOMETROA | HORNIDURA PUNTUA     | HORNIDURA MOTA      |
|------------|----------------------|---------------------|
| 1-6.5KM    | Amundaraingo iturria | JANARIA ETA EDARIAK |

30Km-ko LASTERKETAN:

| KILOMETROA | HORNIDURA PUNTUA        | HORNIDURA MOTA      |
|------------|-------------------------|---------------------|
| 1-6KM      | Esparru azpi. Arrobieta | EDARIAK             |
| 2-10KM     | Ataun herria            | JANARIA ETA EDARIAK |
| 3-14,5KM   | Urgilaga portua         | JANARIA ETA EDARIAK |
| 4-21KM     | Sariozarreta borda      | EDARIAK             |
| 5-26KM     | Amundaraingo iturria    | JANARIA ETA EDARIAK |

OHARRA: Lasterketa bere zatirik handienera, balio natural handiko parajeetatik igarotzen da (ARALARKO PARKE NATURALA), hau horrela izanik, ingurunea ahalik eta gehien zaintzeko eta zaborrak kontrol-guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaio parte-hartzaile guztia. Oinarrizko arau hau betetzen ez duen korrikalari oro, probatik

kanporatuko du antolakuntzak. Honez gain, hondakinen kudeaketa plan bat daukagu eskuragarri.

### **11.-IGAROBIDE DENBORAK:**

30 kilometrotako lasterketan, helmugara iristeko gehienezko denbora 6 ordukoa da. Denboraz kanpo amaitzen duen parte-hartzailea sailkapenetik at geratuko da. 12 kilometrotakoa, aldiz, 2 orduakoa izango da. Edonola ere, antolakuntzako arduradunek korrikalariak probatik kanpo uzteko ahalmena izango dute ondorengo kasu hauetan:

- Igarotze-kontrol ezberdinetan espero diren denborak betetzen ez badira, proba arauak puskatzen baditu, ezarritako ibilbidea betetzen ez badu, erreglamentu dortsala ondo ikusteko moduan eramaten ez badu, antolakuntzari jaramonik egiten ez badio edota beste korrikalariak errespetatu ezean.
- Baztertua edo kanporatua den parte-hartzaile orok, gertuen duen kontrol gunean eman beharko du bere dortsala eta antolatzaileek agindu bezala utzi beharko du proba.

| <b>30 KM</b> | <b>DISTANTZIA</b> | <b>ITXITURA DENBORA</b> |
|--------------|-------------------|-------------------------|
| 1-KONTROLA   | 6,00 km           | 1h30`                   |
| 2-KONTROLA   | 10,00 km          | 2h                      |
| 3-KONTROLA   | 14,50 km          | 3h                      |
| 4-KONTROLA   | 21,00 km          | 4h30`                   |
| 5-KONTROLA   | 26,00 km          | 5h25`                   |

| <b>12KM</b> | <b>DISTANTZIA</b> | <b>ITXITURA DENBORA</b> |
|-------------|-------------------|-------------------------|
| 1-KONTROLA  | 6,50 km           | 1h15`                   |

### **12.- OSASUN LAGUNTZA:**

Antolakuntzak ardura zibileko eta istripuetako aseguruak izango ditu. HCA laguntza ere izango du.

Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei osasun azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

### **13.- SEGURTASUNA:**

Segurtasun edo bestelako arrazoietan oinarriturik, antolakuntzak lasterketako ibilbidea aldatu edo ordezkotako ibilbidetik desbideratu ahal izango du. Era berean, mendi lasterketa bertan behera uzteko eskubidea du parte hartzaileen segurtasuna bermatzeagatik.

### **14.- ERANTZUKIZUNA:**

Izena ematen duen pertsona orok euren ekintzen erantzule izango direla eta borondatez eta libreki parte hartzen dutela ulertzen da.

### **15.- DORTSALEN BANAKETA:**

Dorsalak Lazkaoko udaletxeko Erakusketa gelan banatuko dira 2026ko ekainaren 26an arratsaldeko 17:00etatik 19:30era, eta lasterketa egunean bertan, goizeko 7:00etatik 8:00etara.

Partaide bakoitzak bere dortsala jaso ahal izateko bere nortasun agiri originala (NA) erakutsi beharko du eta norberak etorri beharko du bila.

**16.- LAGUNTZA EZBEHARRETAN:**

Parte hartzaileak istripuren baten aurrean laguntza eman eta kontrol lekuetan edozein ezbeharren berri eman beharko du.

## **17.- BABES PERTSONALA:**

Antolakuntzak ez du derrigorrezkotzat inolako materialik zehazten. Hala ere, proba aurretik bidalitako posta elektronikoan (e-mail) eguraldiaren iragarpena ikusita, honi aurre egiteko materiala eskatzeko eskumena izango du.

Derrigorra izan ez arren, probaren helburuetako bat ingurumenaren zaintza eta errespetua izanik, aurtengo proban bi jokabide egoki gomendatzen dira:

### **EDALONTZIA:**

Korrikalari bakoitzak bere edalontzia eraman behar du.

### **BARRITA, GEL ETA ANTZERAKOAK:**

Derrigorra izango da norberak daramatzan barra energetiko, gel edo antzekoetan dortsal zenbakia jartzea.

## **18.- SARIAK: Ondorengo sariak banatuko dira:**

### **LASTERKETA LUZEA:**

- 1.go Emakumezkoa Txapela, 200€ eta oroigarria,
- 1.go Gizonezkoa Txapela, 200€ eta oroigarria.
- 2.go Emakumezkoa 100€ eta oroigarria.
- 2.go Gizonezkoa 100€ eta oroigarria.
- 3.go Emakumezkoa 60€ eta oroigarria.
- 3.go Gizonezkoa 60€ eta oroigarria.

### **LASTERKETA MOTZA:**

- 1.go Emakumezkoa Txapela, 100€ eta oroigarria.
- 1.go Gizonezkoa Txapela, 100€ eta oroigarria.
- 2.go Emakumezkoa 60€ eta oroigarria.
- 2.go Gizonezkoa 60€ eta oroigarria.
- 3.go Emakumezkoa 40€ eta oroigarria.
- 3.go Gizonezkoa 40€ eta oroigarria.

## **19.-IZEN-EMATEEN EZEZTAPEN POLITIKA:**

Izen-emate baten ezeztapena posta elektroniko bidez egin beharko da: [uztrail@gmail.com](mailto:uztrail@gmail.com).

Diru-itzulketak banku-transferentzia bidez edo kreditu-txartelean egindako ordainketaren bidezko itzulketaz egingo dira.

Itzulketen ehunekoa honako hau izango da:

- Apirilaren 30era arte: izen-ematearen %100.
- Maiatzaren 1etik 31ra: izen-ematearen %50
- Ekainaren 1etik aurrera ez da dirua itzuliko

Diru-itzulketak guztietan 4 €-ko kudeaketa-gastuak deskontatuko dira.

Ibilbideek parte-hartzaileen muga gainditzen den unean, itxaron-zerrenda irekiko dugu eta zerrenda horretan izena emateko email bat bidali beharko da [batalaml2025@gmail.com](mailto:batalaml2025@gmail.com) helbidera. Herritarrek lehentasuna izango dute

## **20.DATU BABESA**

Parte-hartzaileak lasterketan izena ematearekin batera datuen erabilera hau egitea onartzen du:

- Lasterketako sailkapena publikatzeko aukera.
- Lasterketako argazkiak publiko egiteko edo korrikalariei bidaltzeko aukera.
- Lasterketako datuak ezingo dira hauek ez diren beste helburu batzuetarako erabili
- Hau ez onartzeak lasterketan parte hartzea ezeztatzea ekarriko du.

## **21.DATUEN TRATAMENDUA:**

Arduraduna: Kronoak.

Datuen erabilera: lasterketa honetarako erabiliko dira datuak.

Erabiliko diren datuak: datu arruntak erabiliko dira (izena, abizena, jaiotze data, kamiseta neurria...).

## **22.ZERBITZUAK**

Zaindegia irteera/helmuga puntuan egongo da, eta dutxak Joxe Miel Barandiaran kiroldegian izango dira.

Horretaz gain, anoa gune nagusia, freskatzeko dutxa, komunak, eta abar izango dira Irteera/helmuga puntuan.

Lazkaon, 2026ko Martxoaren 12an.

BATALA MENDI LASTERKETA ELKARTEA.

Batala batzordea.

[batalaml2025@gmail.com](mailto:batalaml2025@gmail.com)

Batala Mendi Lasterketa Elkartea

